


AINGERU ZAINDARIAREN ERMITA
C MAILA

AINGERU ZAINDARIA 44



Egile eta data ezezagunak.

Deskribapena

Ermitek eta bere aturreak (zuhaitz handi batez babesturiko terraza bat, buruhormaren aurrean kokatua) multzo baten antzeko zerbait osatzen dute. Multzo horretan ere sartuko da Urrezti Garai etxea (jatorrian bi etxebizitza atxikiak zituen. Gaur egun bakarra du, eta horregatik, hain zuzen ere, globalki ez du balio arkitektonikorik). Ermita hori oin bakarreko eraikuntza entokatua da. Kanpoaldetik bere funtzioa erakusten du, sarreran eta leihoetan agertzen diren arku formako baoen bitartez. Ermita hori bakarrik babestuko da eta ez aipaturiko Urrezti Garai etxea.

Babes erregimena

- 1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.
- 2.- Berariazko erregimena.
 - A.- Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: ermitako leihoen arotzeriak.
 - B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.
 - C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: jasodurak ez dira onartzen.
 - D.- Nahitaezko lehengoratzak: ez.